

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ARTZINIEGAKO UDALA

**Artziniegako Udaleko idazkaritza kontuhartzailletza lanpostua betetzea, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioentzat gordeta**

Kontuan izan behar da beharrezkoa izango dela idazkaritza kontu-hartzailearen lanpostua betetzea, aurtengo abuztuan titularrak erretiroa hartu duelako.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak ikusi dira.

Ebatzi dut

Lehenengoa. Prozedura hastea Arabako Foru Aldundiari proposatzeko gaikuntza nazionala duen toki-administrazioen funtzionario bat izenda dezala Artziniegako Udaleko idazkaritza- eta kontu-hartzailletza-lanpostua betetzeko, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduren batean eta adierazitako lehentasunaren arabera.

Bigarrena. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik 10 egun balioduneko epea irekitzea, bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eskabideak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduaren arabera, eta adierazitako dokumentazioa erantsita.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioak izendatuko dira, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Egoera bakoitzaren barruan, lehentasuna izango da Eusko Jaurlaritzak eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da.

Hirugarrena. Hautagaien lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, eta Artziniegako Udalak izendapena hurrenkera horretan egitearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari eskatu beharko zaio, hamar egun balioduneko epean, destinatuta dauden toki-erakundearen aldeko txostena aurkez dezala, aipatutako artikuluetan adierazitakoaren arabera, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak ere.

Laugarrena. Hautagairik aurkeztu ezean, jarraitu egingo da gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurarekin.

Bosgarrena. Osoko bilkurari ebazpen honen berri ematea, egiten duen hurrengo bilkuran.

Seigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: idazkaritza. 3. Mota.

Lan-harremana: gaikuntza nazionalako funtzionarioa.

Eskala: gaikuntza nazionala.

Azpieskala: idazkaritza-kontuhartzailletza.

Taldea: A1/A2.

Lanpostu-mailako osagarria: 26.

Berriazko osagarria: 22.990,00 euro.

Hizkuntza-eskakizuna: 4. Derrigortasun-data: 2013ko abenduaren 31.

Artziniega, 2024ko maiatzaren 28a

*Alkatea*

*JOSEBA VIVANCO RETES*

### ERANSKINA

..... jauna/andrea, NANaren titularra. Jakinarazpenetarako helbidea:..... Herria:..... Telefono-zenbakia:..... Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioako funtzionarioa da,..... azpieskalakoa da, eta gaur egun..... lanpostua betetzen du..... toki-erakundean,..... k egindako izendapenaren ondorioz,..... lanpostuaz jabetu zen egunean (edo jarduneko zerbitzura itzultzeko, lankidetzan lanpostuak kentzeko eta izendapen askeko lanpostuetan uzteko).

#### Azaldu

Jakin duela Artziniegako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailatza lanpostua hutsik dagoela datozen egunetan, eta behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunen edo metaketaren bidez bete daitekeela.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak izanik, indarrean dagoen legediaren arabera eta dagozkion izapideak bete ondoren, honako hau

#### Eskatzen du

Artziniegako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailatza lanpostua behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu-eginkizunen bidez edo metaketaren bidez (ezabatu dagokiona) betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera doa:

NANaren fotokopia.

Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioako funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

Lanpostua metatuta eskatzen bada, erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko ez duela jada izendapen metaturik betetzen.